

25-26

Cervera Igualada

38,6 Kms

Saihestu egoskorkeria oro, baina zerbait ona hasitakoan, heldu eta ez joan ihesi nekearen edo etsipenaren ondorioz.

Etapas 25

Etapas 25B

Harrera-Tokiak

Datu Interesgarriak

Ignazioaren arrastoak

Autobiografia

Iruizkinak

Etapas 25

Cerverari agur esan eta N-II errepidera zuzenduko gara. Santiago Bidearen gezi horiek, Cerveratik irteteko beste bide bat adierazten dute, Kale Nagusia jarraituz, baina 2,5 km “estra” egitea eskatzen du horrek, eta nahiago dugu horiek aurrezteko etapa luzea baita datorkiguna. Hala bada, Paeriako sarreratik Santa María kalean behera joango gara eta geroago ezkerrera hartuko dugu eta Muralla kaletik hiritik irteteko atera gerturatuko gara; ezkerrera jaitsiko gara, harresiari jarraituaz.

Sant Francesceko askara iritsiko gara eta eskuinera biratuko gara Ondara ibaiaren bideari jarraitzeko. Atsedeen gunetatik eta ur-errota zahar batetik igaroko gara. Zutabeek adieraziko digute Vergóserako bidea.

Vergós erdigunera iritsi eta eskuinera hartuko dugu, San Salvador elizaren aurretik igaroko gara eta errepideari jarraituaz irtengo dugu herritik eta N-II errepidera iritsiko gara. Gure ezkerrera tunel bat ikusiko dugu eta gurutzatu ere

egingo dugu; gero eskuinera dagoen errepidea jarraituko dugu, A-2 autobidearen paraleloan. Beti paraleloan jarraituz, beste tunel bat aurkituko dugu, baina ez dugu gurutzatuko. Beste 700m egin ondoren, gure bidea ezkerrera biratzen da A-2tik urrunduz.

Bideak bihurgune zabala egiten du eskuinera, berriro A-2ra zuzenduz, eta hau azpitik igaroko dugu. Ohiko zementu lantegi bat utziko dugu gure ezkerrera eta A-2 autobidea azpitik igaroko dugu. Biribilgune batera iritsiko gara, zuzenean gurutzatuko dugu, eta hala Sant Pere dels Arquellsen etxetara zuzenduko gara. Herrian sartzean, zelai txiki batean, ezkerrera, "aparkatutako" erreakzio hegazkinek harrituko gaituzte. Aurrera jarraituko dugu Sant Pere iturrira iritsi arte. Leku honetan ezkerrera biratuko dugu angelu zuzenean.

Iturritik 200 m-ra, landa ingurura irtenda, bikoiztu egiten da bidea. Gurea ezkerrekoa da. Hortik jarraituko dugu bide bihurgunetsuan beti aurrera. 1,6 km-ra aurkituko dugu L-203 errepidea, eta ezkerrera hartuko dugu. N-II errepidera hurbilduko gara. Errepidean sartzeko puntuan, angelu zuzenean eskuinera dagoen kalea hartuko dugu eta Sant Antoli i Vilanova herrian sartuko gara.

Herria alderik alde zeharkatuko dugu, eta errepide bera jarraituz irtengo gara herritik. Zuzen jarraituko dugu hurrengo herrira, Pallerolsera iritsi arte. Errepide bera jarraituz igaroko dugu herria. Errepidean aurrera jarraituko dugu zuzen.

Adi orain!! Errepideak 90°-ko bihurgunea egiten du ezkerrera eta hortik 100 m-ra eskuinera biratzen du. Beste 150mra 90°-ra gure ezkerrera dagoen bidea hartuko dugu. Eskuinera dugun zuhaizti baten ondotik pasako gara. Beti zuzen aurrera, gure bide zabala utzi gabe. Zuhaizti batzuek igaroko ditugu, gure bidearekin gurutzatzen diren bideak hartu gabe. 1,7 km-ra, Panadella Zerbitzugunera iritsiko gara.

N-II errepidera hurbilduko gara. Panadellako gasolindegia eta jatetxeen aurretik igaroko gara, eta biribilgunera zuzenduko gara, hura gurutzatu eta jaitsiera hasiko zaigu, beti ere N-II errepidea jarraituz. N-II errepidetik 5 km-ko jaitsiera egin ondoren Porquerises herria ikusiko dugu, pixka bat hondoratua.

Ez daukagu N-II errepidea jarraitu beste erremediorik, Loiolako Ignazioren Errepide Nagusia, eta baita beste askorena ere, errepide hau erabili baitzuten orduan, eta erabiltzen baita orain ere, guk bezalaxe. Bide horretatik Santa Maria del Camira iritsiko gara.

N-II errepidean beti, zubi batek lagunduko digu A-2 autobidea gurutzatzen, berriro A-2 autobidea gurutzatuko dugu, baina azpitik oraingoan. A-2 autobidearen paralelo jarraituko dugu eta gasolindegia baten aurretik pasako gara. Zuzen aurrera jarraituko dugu. Biribilgune batera iritsiko gara. Eskuinera hartuko dugu, N-II errepidea jarraituz.

A-2 autobidearen paralelo jarraituko dugu. A-2 gainean dagoen biribilgune garai batera iritsiko gara. Biribilgunean sartuko gara eta A-2 autobidea igaro ondoren, N-II errepidearekin lotzen den irteera hartuko dugu, gure norabidean beti ere. N-II errepidetik Jorbara iritsiko gara. Errepide honi jarraituz igaroko dugu herria eta herriaren amaieran, bide asfaltatua ateratzen da, eskuinera. Hori hartuko dugu. Errepide zaharra da, N-II errepidearen nahiko paralelo doana. Futbol zelai bat ikusiko dugu eskuinera. Ez dugu errepidea utziko, eta eskuinera dauden Sant Geniseko etxeetara zuzenduko gaitu.

Herrian sartu eta Kale Nagusitik igaroko dugu. Errepide bera jarraituko dugu, Igualdara bidean A-2 autobidera hurbildu eta zubi batetik gurutzatzen duena. Aurrera jarraitu eta A-2 autobidearen bestaldean biribilgunea ikusiko dugu. Aurrez aurre gurutzatuko dugu Santa Margarida de Montbui aldera eta Igualada herriaren norabidean jarriko gara herrian sartzeko.

Sant Jaume Sesoliveres Errepidean gaude, B-222 errepidean hain zuzen. Zuzen jarraituko dugu errepidetik, Igualadara jaitsiz. Biribilgune baten ondotik igaro eta zuzen jarraituko dugu. Angel Guimera Etorbidean aurkituko gara. Sant Jaume de Sesoliveres ermita izango dugu ezkerrera, goian. Angel Guimerá etorbidea alde batera utzi eta Felicia Matheu kalean sartuko gara eta horrela ez dugu errepidetik jarraitu beharrik izango. Sant Jaume Serras kalean aurrera zuzen, gero Z erako bira bat emango dugu eskuinera eta ezkerrera, Les Alzines kaletik. Zuzen aurrera jarraituko dugu hurrengo biribilgunera arte, Anoja ibaiaren zubiaren ondoren. Zuzen gurutzatu eta Angel Guimera etorbide beretik jarraituko dugu, gure eskuinera gasolindegia bat agertu arte. Eskubitik abiatzen gara, Prat de la Riba kaletik. Kale honetan zehar, ezkerrerantz, 200 m ingurura, erromesentzako aterpea dago lantegi zahar baten barruan. Gure kalea mozten duen kalea gurutzatu eta Sant Ignasi kalean aurkituko gara. Zuzen jarraituko dugu bertatik. Sant Domenech kalera aldatzen da. Creu plazara iritsiko gara. Plaza horretatik ateratzen da l'Argent kalea, Santa Maria elizara eramango gaituena.

Etapa 25B

Harrera-Tokiak

CERVERA

Auto Taxi Sala 24h . Tel: 608 608 130 Taxi Agramunt . Tel: 973 923 327

IGUALADA

Ayuntamiento . Tel: 938 031 950.

Hotel América*** . Av. Mestre Montaner, 44-45. Tel: 938 031 000.

Pensión Canaletas . Av. Mestre Montaner, 60. Tel: 938 032 750

Refugio de peregrinos . , Albergue y Oficina de Turismo. Plaça de la Creu, 18, Igualada. <https://albergcalmaco.com> info@albergcalmaco.com Tel: 93

516 40 16

Albergue Nuestra Señora de la Mercè. c/ Nuestra Señora de la Mercè, nº 1.
Tel: 627429773. Abierto: de Julio a Octubre.

Taxi Enric Subirana . 630 538 033

Taxi Marcial . 938 045 503

Taxiradio Igualada . Tel: 938 070 308

Taxis Igualada . 609 478 219

JORBA

Albergue de peregrinos . Ofrecen servicio de comidas. Plaza de la Fuente, 3,
tel. 93 809 41 01

LA PANADELLA

Hostal Bayona . (con precio especial para los peregrinos, si se pide). Tel: 938
092 011.

SANTA MARIA DEL CAMÍ

Hostal Can Llobet. Restaurant. Tel: 722 753 994

Datu Interesgarriak

Eta oso luzea izan da eta bideko tarte honetan arazoak izango ditugu
ostatatzeko, beste etapa batzuetan bezala.

VERGÓS: Seguru gaude beste erromes askok bezala, Ignaziok ere XII. mendeko
San Salvador elizan sarturen bat egin izango zuela hemendik igaro zenean,
Errege Bidean baitzegoen. Herrian taberna bat dago.

SANT PERE DELS ARQUELLS: Ezohiko irudi bat. Erreakzio hegazkinak
herriaren sarrerako soro batean "aparkatuta". Bada bitxikeria polit bat ere: etxe
bakoitzak bere izena du azulejuetan eginda eta garai batean etxeok zuten
lanbidea ere ageri da. Ez dago zerbitzurik.

SANT ANTOLI I VILANOVA: Jatetxea, supermerkatua eta botika eskaintzen

ditu.

PALLEROLS: Santiagora doazen erromesentzat, herri honetan Sant Jaumeri eskainitako eliza eder bat dago, XII. mendekoa. Puntu desberdinetan ikusi ahal izango ditugu “Donejakueko maskorak”. Santiagoren tradizioaren testigantza bat gehiago, Errepide Nagusi honetan. Ez dago zerbitzurik erromesentzat.

LA PANADELLA: Errepide nazional zaharreko zerbitzugune ezaguna. Jatetxea eta supermerkatua eskaintzen dizkigu.

SANTA MARIA DEL CAMI: XII. mendeko eliza erromanikoa. Behar bada erromesen eta bidaiarien babestokia zen garai batean. Ez dago zerbitzurik XXI. mendeko erromesentzat.

JORBA: Bere gaztelua X. mendekoa da (hondatua baina goiko aldean ikus daitekeena). Jatetxea eta supermerkatua eskaintzen dizkigu.

SANT GENIS: Ez dago zerbitzurik.

IGUALADA: Herri garrantzitsua. Herri honetan erosi zituela dirudi Ignaziok, gerora jantzi asmo zituen “oihal latzeko arropak”. Hemen Ignaziok, pentsatua du jada Montserraten egingo duen otoitz gaubeila. Santa Maria eliza XI. mendekoa da, azken berriztatze lanak XVII. mendekoak badira ere. Herri honek jatetxeak, supermerkatuak, botikak, osasun-etxea, bankuak, bizikleta-tailerra eta informazio bulegoa (Tel: 938 051 585) eskaintzen ditu.

Ignazioren arrastoak

Oharrak: gure “laugarren astean” jarraitzen dugu, umore onez, Jesukristori gero eta lotuago baikaude bere misioan: Jainko maitasunean betiereko askatasunerako eta zorionerako bidean geratuko gaituen ezer ez dago. Ez dezagun ahaztu “sarrerako otoitza” eta amaierako elkarrikeria otoitzaren amaieran eta egunean zehar. Eta bizi dezagun Kristo Berpiztuaren poza! Ongi etorri argia, loreak, ura eta adiskideak! Gaurko ignaziar pistak ere Ignaziok bezala egitera garamatza: eros ditzagun arropa berriak, oinetako berriak, gure erromesaldian izandako barne aldaketa islatzeko.

Eskaria: Jainkoari eskatuko diot Kristo Berpiztuarekin poztu nadila, orain mundura igorri bainua bere misioa zerbitzatzera. Nire bizitzan bere presentzia antzaldatua ezagutzeko gai izan nadila erregutuko dut, gizateria adiskidetu eta

bizia emateko bere zereginean lagun eginda.

Hausnarketak: Jesusek gure eskuak behar ditu arreta, adiskidetzeari, Maitasuna eta Bizia behar duten gizon eta emakumeei harrera egiteko. Jesusek gure borondatea behar du, guk aurrera egiteko eta eraikitzeke dugun nahia, denon artean Erreinua eraikitzen jarraitzeko. Jesus Berpiztuak bera jarraitzera eta Munduan hasi den eraldaketan Berarekin parte hartzera deitzen gaitu. Ebanjelioetan Jesusek beraien izenez deitu zien zenbait pertsonari. Gaur proposatutako misterioei begira gaude eta geure izena entzun dugu, horrela jakin dugu gure barnean zerbaite mugitzen dela: zer sentitzen dut Zakeo bezala deitua izatean? Zer sentitzen dut Jesusekin Tabor mendira igotzera deitua izatean? Zer esan nahi du niretzat Jesusen ondoan sentitzeak?

Tabor mendian Jesusek izandako antzaldaketaren kontakizuna gure gizaterian ezkutatuta dagoen Egiaren iragarpena da. Askotan oso ilun egon arren, gudan dago argia. Jainkoaren Esentzia gudan bizi da eta haragiztatzen garen une beretik hauteman daiteke. Gure giza izaera Argi Jainkotiar horrentzako “iragazki opakua” da. Batzuetan “izar argitsu” ordez “zulo beltz” bihurtzen gara. Sufrimendua, bidegabekeria, inguratzen gaituen absurdua... direla eta, “iragazkiak” Argi printzarik txikiak ere itzali egiten digu. Baina Jesus Berpiztuan aurkitu dugu bizitzen ditugun zentzugabekeria guztien gainetik Argiak piztuta jarraitzen duela gudan eta esperientzia horrek antzaldatu egiten gaitu. Ezerk ez gaitu bananduko Jainkoaren Maitasunetik. Dena antzaldatu daiteke bere Maitasunean.

Jesus Berpiztua gudan dagoen Jainkoaren Bizia da. Bere biziarekin mezu hau komunikatzen duenak ez digu huts egingo. Zer antzaldatu behar da gure bizitzan? Zerk ez dio uzten jainkoaren argiari gure bidez iragazten?

Testuak:

Lukas 19,1-10. Jesusek Zakeori hots egin eta bere kezketatik eta bizi estilotik jaisteko esan zion: Jesus ikusi nahi baduzu, jaitsi zaitez egin dituzun mendietatik. Jesus zure bizitzan ikusi nahi baduzu, zoaz zure etxera Bera han baituzu zain. Eta utzi zure burua Jesusen eskuetan, topaketa eskuzabala eta eraldatzailea izan dadila.

Erromatarrei 8,31-39. Ezerk ere ezin gaitu Jaunaren Maitasunetik aldendu.

Mateo 17,1-13. Jesusek bere ikasleei dei egin zien eta bere antzaldaketan lagun

egiteko eskatu. Nik ere Berarekin mendira joan beharra daukat. Minak eta zailtasunek gure fedea eta gure erabakimena txikitu dezakete, baina Berpizkundean sinesten badugu, Bizia ez dela amaitzen sinesten dugu, gugan ezerk ere ezin duela Argia ezkutatu, gugan ezerk ere ezin duela Hitza isildu.

Mateo 17,14-21. Jesukristo zerbitzatzeko eta bere misioan laguntzeko deituak, gure fedea ezin da ahula izan. Berarengan sinesten badugu, ez dugu porrot egingo. Gugan eta gure aukeretan sinesten badugu, Bere izena eraman arren, ez dugu ezer lortuko.

Amaierako elkarrizketa: gure barne erromesaldiko etapa honetan gure lagun eta adiskide Jesukristorekin ibiltzen ohitu gara eta adiskideek elkarrekin hitz egiten duten adinako askatasunez hitz egiten dugu elkarrekin. Barneko indarra eta grazia baldin badauzkazu, eska iezaiozu bere ikurrinaren pean har zaitzala Jainkoaren Erreinua bere ondoan eraikitzeko. Amaitzeko, “Aita Gurea” esan.

Autobiografia

Dirudienez Igualada herrian erabaki zuen Ignaziok, gerora eramango zituen erromes jantziak erostea, urte batzuek geroago deskribatu zuen bezala:

16. « Montserrat baino lehenago dagoen herri handi batera iritsita, han erosi nahi izan zuen, handik aurrera jantziko zuen eta Jerusalemara eramango zuen jantzia; eta hala, zakuak egiteko oihala erosi zuen, oihal ez oso itxia eta arantza asko zituen, eta oinetaraino iristen zen jantzia egiteko agindu zuen oihal horrekin. Eta pordoia eta kalabazatxoak erosi zituen, eta dena jarri zuen mandoaren zela-egur aurrean. Eta espartinak ere erosi zituen, baina ez zuen pare bat besterik eraman; eta hori, ez hala agindu zuelako, zangoetako bat guztia bendaz lotua eta pixka bat zauritua zuelako baizik; hain zuen zauritua zangoa, zaldiz joan arren, handitua aurkitzen baitzuen gauero: hanka horretan oinetakoa janztea egokiago zela iruditu zitzaion».

Leku eta une hau egokiak izan daitezke, gure bizitzan zehar, gainean hartzen goazen zamak aztertzen joateko, “itxura oneko jantzi horiek” eta “bitxiak”, agian Montserrateko Amabirjinaren oinetan uztea erabaki dezakegunak. Ez ote guke hartu beharko egiten ari garen erromesaldiarekin bat datorren bizitzeko era bat? Zakuzko jantziak eta erromesaren sandaliak? Zer uzten dugu eta zer jasotzen? Seguru asko, gure Bide honek, daukaguna eskuzabal eskain dezakegun leku hartara eramango gaitu, izan ere, Sustraia eta Oinarria baitira garrantzitsuak, ez

osagarriak, ezta?

Iruzkinak

Leave a Reply

Your email address will not be published. Required fields are marked *

Comment *

Name *

Email *

Website

Δ

[Bizikletaz egiteko erraza](#)

eta La Panadellatik Igualadara aldapa behera zoragarria.

Cervera : Km 0.

Pallerols: Km 12.

Panadella: Km 16.

Santa María del Camí: Km 23,8.

Jorba: Km 31,6.


Igualada: Km 38,6.

Bidea

Etapa eskema



Altimetria



Igualadako eguraldian

[bidea ikustea wikiloc](#)

[MapOut deskargatzea](#)

[gps-a deskargatzea](#)


[MapOut deskargatzea B](#)

[bidea ikustea wikiloc B](#)

[gps-a deskargatzea B](#)

Galeria

Etapako Argazkiak








































































[aurreko etapa](#)

[hurrengo etapa](#)